

Autoeraketa Hezkuntzan

Zergatik hezkuntza kooperatibak?

10 erantzun

Andoni Mujika

2018ko ekaina

Sarrera

Idatzi honek bildu nahi ditu dokumentu bakarrean Hezkuntza autoeratu eta kooperatiboak dauzkan zentzu eta izateko arrazoiak. Horretarako ahalik eta zehaztasun mailarik handiena erabiliko da.

Bestetik, zuzenduta dago hiritar ororentzat, baina bereziki, autoeraketaren eta kooperatibismoaren baitan dabilzanentzat.

Bi edo hiru datu aipa ditzagun sarrera honekin jarraitzeko eta gaia apur bat kokatzeko.

Hezkuntzaren estrategikotasuna ikusteko bisioa egon da hemen. Lau lerrotan baino ez bada ere, inportantea da gai honetan murgiltzeko kontutan hartzea hezkuntzaren inportantzia ikusteko gaitasuna egon dela. Historian zehar, hezkuntza ere erdigunean jarri izan da hemen garapenerako estrategia bezala. Bisioa izan dute horretarako gure aurrekoek. Hortxe ditugu ikuspegi horren hainbat adibide konkretu. Esate baterako, auzoetako eskolak, Bergarako seminarioa, Ilustratuen mugimendua, Euskal Herriko Adiskideen Elkarte, Biteriren esperientzia, Arizmendiarietaren hezkuntza estrategia, ikastolak eta abar luze bat.

Hezkuntza eta prestakuntzaren aldeko apustu historiko honek bi ezaugarri izan ditu nabarmentzeko modukoak: berrikuntza eta aplikagarritasuna (edo ikuspegi praktikoa). Berrikuntzari dagokionez, zientziak ematen zituen azken aurrera pausuei oso begira (Europara batez ere) izan ditugu Euskal Herriko hezkuntza-aitzindariak aspalditik, eta bestetik, aplikazioa (lana, industria, metalgintza, arrantza eta gizartearen beharizan praktikoa) zuzendutako formazioa izan da. Honen adibide dira teknologia eta teknikaren eremuan izan ditugun eskolak eta programak industria eremuan, arrantza sektorerako teknologietan, burdinaren eraldaketan, makina-erramintan... Oso garbi eduki izan da hezkuntza, ikerketa eta teknologian inbertitzea lehentasunezko apustu estrategikoa zela guretzat.

Hezkuntzaren desafioak. Orain aldira etorritz, Euskal Herriko hezkuntza sistemak, orokorrean, izaera ezberdineko erronka oso inportanteak dauzka mahai gainean hurrengo urtetarako. Batzuk aipatzearen:

- Orokorrera eta beste guztiak, nolabait, batzen dituen da hezkuntzak gure testuinguruan daukan estatua igo egin behar dela. Posizioa irabazi behar du jarduera honek.
- Irakasleen motibazioa.
- Irakasleen bokazioak.
- Profesionalentzako goi mailako formazioa eta formazio iraunkorra.
- Hezkuntzaren kalitatea eta eraldaketa/berrikuntza pedagogiko sakonak egin beharra.
- Ratioak.
- Zentroen kudeaketan hobetzea.
- Hezkuntza-erakundeen gobernantza egokia eta autonomia.
- Arrazoi ekonomiko edo beste batzuentatik sistematik kanpo inor ez geratzea.
- Lan munduarekin zein gizartearekin gehiago konektatzea, besteak beste.
- ...

Desafio hauek guztiak hezkuntza eredu ezberdinetatik landu daitezke, jakina. Hala ere, autoeraketa eta kooperatibismoaren paradigman kokatzen garenok ikuspegi horretatik saiatu behar dugu hezkuntzaren erronkei erantzuten. Izan ere, autoeraketaren konbikzio eta koherentziatik begiratuta, eta beste inor gutxietsi gabe, planteamendu kooperatiboa egokia da guzti horiei irtenbideak bilatzeko.

Hezkuntzaren autoeraketarekin eta hezkuntza kooperatibekin zalantzak. Gure usteak-uste, hezkuntza kooperatibei buruz, foro batzuetan, zalantzak eta galderak entzuten dira. Hemen horietako batzuek:

- Hezkuntza kooperatibek ba al daukate zentzurik gaur egun?
- Hezkuntza eredu ezberdinen artean, ba al dago ezberdintasun esanguratsurik?
- Beste aukera batzuek egonda, merezi al du sistema propio eta kooperatibo bat mantentzeak? Ulertzen al da hezkuntza modu kooperatiboan, hau da, ezberdin, antolatzeke komenigarritasuna?
- Egungo eragileak eta gizarteak (bazkide, irakasle, ikasle, guraso eta hiritarrek) ba al daukate eredu honen zergatia azaltzeko argumentario garbi bat?

10 erantzun

Hasieran esan dugun bezala, gure helburua da hezkuntzaren sektorean ere autoeratzea eta kooperatibak egitea zergatik den interesgarria eta beharrezkoa azaltzea. Horretarako, modu zehatzean laburbilduko ditugu erantzun horiek 10 puntutan zerrendatuz:

1.- Autoeraketaren eta kooperatibismoaren paradigma sektore guztietarako baliagarria da, definizioz.

Autoeraketaren paradigmak sektore guztietarako balio du, edo ez du balio. Ez da esparru batera edo beste batera mugatzen, ezin da selektiboa izan horretan. Paradigma izateari utziko lioke. Ez da proposamen partzial bat, integrala da. Potentzial hori dauka, eta praktika erreal esanguratsuak ditu zenbait sektoretan (dibertsitate handia) hori demostratzeko.

Hezkuntzaren jarduera ekosistema kooperatibo eta autoeratuaren errealitate estrategiko bat da, eta izan da. Makinaria kooperatiboaren ardatza.

Euskal kooperatibismoak orokorrean, eta Arrasatekoak konkretuan, zenbait ezaugarri dauka: beste batzuren artean, bere printzipioak, dimentsioa, nazioarteratze maila, langile kopurua, fakturazioa, berrikuntzarako-sena eta abar. Baina denen artean hiru diferentzial nagusitzen dira eta egiten dute fenomeno hau berezia eta bakarra munduan: bere interkooperazio sistema, langileak bazkide izatea eta, hirugarrena, gizarte bateko jarduera inportanteenak kooperatibizatu egin dituela. Sektore horien artean, industria, kontsumoa, zerbitzuak, finantzak, osasuna, etorkizunerako pentsio sistema propio bat eta hezkuntza, ikerketa eta formazioa daude.

Goazen azken esparru honekin. Euskal Herrian inizatiba sozialetik, autoeraketaren lojikatik, zenbait hezkuntza, ikerketa eta formazio esperientzia oso esanguratsuak abiatu izan dira azken 6-7 hamarkadatan. Hemen inportanteenak: helduek euskara ikasteko eta alfabetatzeko kooperatiba eta elkarteak (AEK eta beste batzuk), Udako Euskal Unibertsitatea, Mondragon

Unibertsitatea, Lea Artibaiko Eskola (Lanbide Heziketa eta Polimerotan Ingeniaritza nagusiki), Teknologia eta ikerkuntza zentroak eta Ikastolak.

Kooperatibismo eta autoeraketaren paradigmarentzat bere burua antolatzen duen edozein esperientzia da, definizioz, oso albiste ona. Lojika horretatik begiratuta hori eztabaida-ezina da. Edozein prozesu protagonisten esku egotea delako autoeraketa eta kooperatibismoaren izateko arrazoi nagusia, azken zentzua ematen dien idea, hain zuzen. Nork dauka argumentazio solido bat, batez ere autoeraketaren eta kooperatibismoaren mundutik, “sektore honetan bai” eta “honetan ez”, arrazoitzeko? Ezin baita ahaztu, aipatu dugun bezala, Euskal Herrian, baita Arrasatetik kanpo ere, hezkuntzan, formazioan eta ikerketan oso esperientzia sozial eta kooperatibo inportanteak daudela.

2.- Uniformizazioaren arriskuaren aurrean, identitatea, autonomia eta dibertsitatea.

Norbere erakundearen jabe izateak identitatea sendotzen du. Besteengandik errazago ezberdintzen gara, eta bakarrak bihurtzen gaitu. Horrez gain, bere kideak bertako protagonista direla sentitzen laguntzen du.

Gure inguruan, azken mendeetan zehar, gizakiarentzat presentzia zentrala izan duten paradigma, ideologia eta erlijio nagusiek indarra eta presentzia galdu dute. Sinesmen konpartitu nagusiak krisian daudela esan liteke. Testuinguru honetan, munduan, globalizazioaren ondorioz identitatearen uniformizazio prozesu indartsua gertatzen dabil.

Baina, besteak beste, horrexegatik, ez al dugu inoiz baino gehiago behar identitate sendo eta propio bat, ezberdin bat? Euskarri pertsonal eta kolektibo bat? Gainontzekoekin harremanean eta elkarlanean bidea egoki egiteko nortasun-helduleku bat? Berdinetik berdinerara harremanak harilkatzeko? Identitate lokaletik identitate unibertsalera salto egiterakoan ez diluitzeko?

Gure buruaren jabe izanda, organizazioak protagonisten esku edukita, identitate propio hori elikatze osagai inportante bat gehitzen da. Ez da bigarren mailako kontu bat. Besteak beste, ‘nor garen’, ‘nola jardun behar dugun’ eta ‘norantz goazen’ galderak erantzuteko klabea delako.

3.- Autoeraketarako, elkarlanerako eta lankidetzarako tradizioa Euskal Herrian.

Euskaldunok, gure muga guztiekin, desfioei lehen pertsonan eta elkarrekin lankidetzan aurre egiteko daukagun ohitura, kultura eta tradizioa eutsi beharreko ezaugarria da. Hori ere gure identitatearen elementu bat da.

Beraz, Euskal Herriak bere hezkuntzaren parte bat autoeratuta edukitzearen arrazoietakoa bat hortik ere azaltzen daiteke.

Euskal Herria herri txikia izan da, eta ez du berezko errekurso naturaletan aberastasun handiegirik izan. Horren ondorioz, batetik, herri emigrantea izan da eta, bestetik, lanerako eta elkarlanerako beharra eta grina aspaldidanik barneratuta dauzka. Mota ezberdinetako beharrianak betetzeko autoeratu eta elkarlanaren bidez erantzun da une askotan. Hori gure ezaugarrietako bat izan da herri bezala historian zehar.

Gertuago etorrita, esan behar da, gizarte, kultura, hezkuntza eta ekonomia sozialaren esparruari dagokionez, 60ko hamarkada oso aro aberatsa eta dibertsitate handikoa izan zela, diktadura

zegoen arren. Horren adibide dira, esaterako, euskalgintza eta hezkuntzaren eremu ezberdinetan sortutako hainbat eta hainbat ekimen autoeratu: literaturan, artean, helduen euskalduntzean, euskal komunikabideetan, euskararen estandarizazioan, Durangoko Azoka, UEU, Ikastolak, Mondragon Unibertsitatea eta abar. Beste inizatiba sozio-ekonomiko garrantzitsuenak ere ordukoak dira: kooperatibak.

Inizatiba haien guztien iturburuan motibazio ezberdin eta oso erakargarriak zeuden: garapen sozio-ekonomikoa sustatzea, enpresa modelo kooperatibo berri bat garatzea, hezkuntza antolatzeko eta ulertzeko molde berriak praktikatzeko, zentzu etikoa eta justizia soziala praktikara ekartzea, demokrazia erakundeetan txertatzea eta euskal izaeraren eta bere kulturaren garapena, batez ere.

Baina ekimen anitz haiei guztiei begiratu gero, konpartitzen al zuten bereizgarri komunik? Baiezatu daiteke ekimen haietan guztietan gauzak egiteko eta prozesuak ulertzeko moduan zegoela elementu komuna, hau da, protagonistek hartu zutela euren gain proiektuen arduraren eta jabetza kolektiboa, beraz, erabakimena. Autoeraketaren paradigmak batzen zituen guztiak, kooperazio-formula ezberdinak erabiliz. Beraz, bi faktorek eragin zuten zuzenean desio konpartitu haiek esperientzia erreala bihurtzeko: motibazio kultural, sozial, ekonomiko, etiko eta pedagogiko bat eta autoeraketan oinarritutako estrategia indartsu bat. Hortxe daude lehen enbrioi haien derrigorrezko osagaiak.

4.- Lanari eta ekintzailetasunari eman izan zaion balioa hemengo kulturean.

Lana eta ekintzailetasuna ere gure ADNan daude markatuta. Autoeraketa esperientziak gertatzeko baldintza ezinbestekoak dira biak. Edozein egitasmori berehala heltzeko dagoen izpiritua hemen aipatzeko modukoa da, eta aintzakotzat hartzeko modukoa. Ureztatu behar den ezaugarria.

Herri honetan lanerako eta ekintzarako kultura sustraituta dago. Ekintzailetasun esperientzia individual eta sozialez josita dago Euskal Herria. Pentsamendutik ekintzara azkar pasatzeko izugarriko joera dauka herri honek. *“Errealitate bihurtzen ez den ideia ez da ideia ona”*, esan zuen Arizmendiarririk eta ondo biltzen du esan nahi dena.

5.- Hezkuntza autoeratu eta kooperatiboaren formulak gaurkotatzea du.

Jatorrian zeuden arazoiez gain, badira beste batzuk gaurko belaunaldien kezkekin eta motibazioekin bat egin dezaketenak.

Belaunaldi berriak eta egungo testuingurua, jatorrian zegoenarekin alderatuta, ezberdinak dira, noski. Hezkuntza kooperatibak sortzeko zeuden motibazio batzuek indarrean jarraitzen dute, eta beste batzuk, motelago daude. Baina beste alde batetik, gaurko pertsonaren motibazioekin autoeraketaren proposamena sintonian egon daiteke. Kontutan hartu behar dugu egungo pertsonen formazioa, informazioa, hezkuntzarekiko sentsibilitatea eta exigentzia handiak direla.

Garai honetako gizakiarentzat formula hau interesgarria izan daitekeela erakusteko jar ditzagun adibide batzuk:

- Kooperatibaren baitan protagonistek hartzen badituzte erabakirik inportanteenak eskaintzen den hezkuntzaren kalitatean gehiago eragiteko aukera dago.

- Demokrazia, jabetza eta parte-hartzea modu nahiko sakonean garatu daitezke hezkuntza-kooperatiban.
- Kudeaketa eta zerbitzu eraginkorragoa eskaintzeko potentzial handiagoa dauka kooperatiba batek. Bertako bazkideen gainean dagoelako erantzukizuna.
- Kanpo eragileekiko dependentzia jaitsi egiten du eta autonomia irabazi egiten da.
- Proiektuaren jabetza bazkideena denez, lankidetzaren errealitatean praktikatzeko baldintza hobeak sor daitezke.

6.- Jabe izateak ematen duen motibazioa eta kudeaketa eraginkorragoa egiteko erantzukizuna.

Kooperatibaren jabetza eta erantzukizuna protagonistena denez, ez dagoenez beste hirugarren baten eskuetan, lana efikaziaz eta kalitatez egiteko motibazioa eta tentsioa handiagoa da.

Hezkuntza komunitateak eta gizarteak eskatzen du tentsio hori bizirik mantentzea. Eta ekarpen hau ere interesgarria da gizarte osoarentzako.

Proiektuaren parte izateak, gainera, pertenezkoa sentimendua elikatzen du eta, horren ondorioz, erakundearekiko konpromisoa eta proiektuarekiko motibazioa handitu egiten ditu.

7.- Pertsona eta Taldea orekan eta errealitate konkretu batean zaintzeko aukera handia ematen du hezkuntza-kooperatibak.

Pertsona eta taldea dira erakunde ororen bi eragile nagusiak. Eredu kooperatibo batean, tentsioak tentsio, interes biak zaindu behar dira errealitate instituzional konpartitua delako. Eta plano ezberdinetan egin behar da: kooperatibaren kudeaketan, ordezkaritza instituzionalean, enpresaren ekonomian, eguneroko jardueran, proiektuetan, erabakiak hartzerakoan eta abar.

Oso laborategi praktikoa interesgarria eta errealista da horretarako kooperatiba. Batetik pertsona erdian dagoelako eta, bestetik, proiektua kolektiboa ere badelako. Hori ariketa zaila, baina oso interesgarria da.

8.- Gizarte eraldaketa eta herrigintza

Hezkuntza kooperatibak herritik eta herrirako sortu dira. Kooperatiba hauen sorrera gizartearen baitan gertatu zen eta horixe da euren ekosistema, habitat naturala. Zerbait badira, espazio horren parte eta emaitza dira.

Kokagune horretako parte izanda, hezkuntza kooperatiben bokazioa da eremu zibil horretan autoeraketa eta lankidetzaren garapenean laguntzea edo ko-lideratzea; bere burua antolatzen dakien gizartea delako bere azken helmuga.

9.- Demokrazia eta autonomia.

Hezkuntza-kooperatibek bere etorkizuna erabakitzeko autonomia maila altua dute. Hori eskakizun zorrotza da, baina askatasuna ematen du beste eragile batzuekiko.

Erakunde batean parte hartzeko eta demokrazia praktikatzeko mailarik altuena bazkideak ematen du. Erantzukizun mailarik altuena ere bai.

Hezkuntza komunitate kooperatiboa osatzen dutenen artean dago banatuta erakundearen jabetza, beraz, erabakimena hortxe dago. Hori horrela izanik, botere hau modu demokratikoan gauzatzen da eta dagozkion organoetan eta onartutako araudi eta estatutuen bidez kudeatzen da. Hau da, komunitate horretako eragile guztiak erabaki-organoen ordezkatuta daude eta parte dira.

10.- Hezkuntza kooperatibizatuta edukitzeak koherentzia osoa dauka eta balioa handia testuinguru kooperatibo batean.

Hamargarren printzipio kooperatiboa Hezkuntza da. Hezkuntza kooperatiboa, profesionala, teknikoa eta humanoa. Erabat koherentea eta egokia da unibertso autoeratu eta kooperatibo batean hezkuntzaz (orokorrean) arduratuko diren eragileak ere kooperatiboak izatea. Izaera hori konpartitzeak, uste dugu, gauzak ulertzen eta egiten lagundu egiten duela izugarri. Lojika organizatibo bera edukitzea ezinbestekoa da misioan eta bisioan errazago bat egiteko.

Gogoratu behar da hezkuntza ekimen bat izan zela esperientzia kooperatiboaren lehen errealitatea. Hezkuntza da Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren lehen hazia, Arizmendiarrietak irudikatutako proiektu eraldatzailearen oinarria.

Beste alde batetik, jaso dezagun Hezkuntzaz hitzegiten duen printzipio kooperatiboak (hamargarrenak, azkenak) dioena enuntziatuan: *“Aurreko printzipio guztiak ezarri ahal izateko, ezinbestekoa da behar besteko pertsonak eta baliabide ekonomikoak bideratzea hezkuntzaren alor ezberdinetara: kooperatibora, profesionalera eta gazteriaren hezkuntzara.”*

Printzipio honek Arizmendiarrietaren oinarrizko konbikzioetara jotzen du: hezkuntza integrala (teknikoa, humanoa eta soziala) da pertsonen kontzientziak aldatzeko eta, ondorioz, pertsonak subjektu eraldatzaile bihurtzeko bide bakarra. Subjektu berri horretan jartzen du Arizmendiarrietak aldaketarako esperantza eta estrategia guztia.